

## «Atentzioa sufrimenduak ematen dit, zentzu guztietan»

Ane Urkola 2018-05-30 10:58 KULTURA **TOLOSA**

Maixa Zugasti idazleak bere bigarren eleberria argitaratu berri du: 'Ahotsak eta itzalak'. Gerra zibilaren inguruko istorioa kontatzen duen fikziozko eleberria da.

## Gonbidapenak

Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?



### Tolosa / Kultura

Iñaki Letamendia, 50 urtez  
sanferminetan

Dantza latindarrak zabaltzen

«Zoriontasuneko 10 urte izan dira,  
jendeak erantzun du eta gu oso pozik  
gaude»



Maixa Zugasti. ANE URKOLA | [Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

Maixa Zugastik (Tolosa, 1973) *Ahotsak eta itzalak* liburua argitaratu du. Gerra Zibila da istorioaren oinarria, eta bestelako gaiak ere lantzen ditu: erbestea, isiltasuna, heriotza...; pertsonaien atzean dauden argi eta ilunak. Atzera begirada, etorkizuneko egia osatzeko.

### 'Ahotsak eta itzalak' da eleberriaren izenburua. Zergatik?

Nik urte askotan *Sotto voce* izenburua erabili nuen. Joxe Miel Barandiaranen txosten batean, Zeraingo irakasle batek esaten zuen jendeak *Sotto voce*-ean ahapeka, italieraz deitoratzen zituela Elizak egindakoak. Atentzioa eman zidan espresio hori erabiltzeak, eta esanahiarengatik izen hori jarri nion eleberriari. Inaxio Mujika editoreak proposatu zidan euskarazko izenburua jartzeko, eta esanahi beragatik *Ahotsak eta itzalak* izenburua jarri genion. Izan ere, pertsonaiek bere iragana berreskuratzen dute, aurkitzen dituzte ahotsak, isiltasunak, ausentziak, itzalak eta presentziak...

Gau Giro, Tolosako udako gauak alaitzeko

10 urte bete ditu Tolosa Kantarik

Blues-a, entzuteko eta ukitzeko moduan

Tolosa Kantari: hamarkada, ezarriak, belarriak eta kaleak gozatuz


May Gorostiaga omendu dute Amaroako Antzerki Astearen 20. urteurrenean

Tomas Hernandezek 'Euskal grafia' liburua argitaratu du

Arte eszenikoen «maisua» Amaroako antzerki astearen barruan

## Ikusienak

1



Ama batek seme-alabei bezala

2



Jokin Etxeberria irabazle Gipuzkoako Sega Txapelketan

3

Zorionekoa

4



Dantza latindarrak zabaltzen

## Zure semearekin batera hazi den eleberria dela diozu.

Nire seme zaharrenak 17 urte ditu, eta haurdun geratu nintzenez bururatu zitzaidan ideia. Egia esan, niri gogorra egin zitzaidan; umeak txikiak ziren, nekatu egiten zara, eta lotan daudenean horrelako lan batekin jarraitzea gogorra da. Hala ere, narrazio laburren ondoan, historia luzeak erakargarriagoak egiten zaizkit, jarraipen bat eskatzen dutelako. Amaierako puntua kostatzen da non jarri...

## Noiz jarri diozu azken puntua?

[Barreak] Nik uste dut editoreak jarri duela. Bi aldiz laburtu nuen nik nahi nuelako, eta gero noizbait jarri behar da amaierako puntua. Behin ere ez duzu ondo ikusten... Nahiko perfektionista naiz.

## Dokumentazio lanak garrantzia handia izan du eleberri hau egiteko garaian?

Bururatu zitzaidan Gerra Zibilar buruzko istorio bat egitea; erbestea oso gogorra iruditzen zait. Garai historiko horretaz dokumentatu egin behar izan dut; izan ere, fikzioa den neurrian, benetakoa dirudien zerbait egin behar duzu. Dokumentatu behar da ingurua sortzeko, zein gauza bizitzen diren jakiteko, garai horretan gertatzen diren berri izateko, etab. Dokumentazio lan hori egiterako orduan topatu nituen Joxe Miel Barandiaranek bildu zituen 136 testigantza horiek. Hala ere, ez da nobela historiko bat; hori oso garbi nuen.

## Hain zuzen, 'omenalditxo' ere egin nahi izan diozu.

Apaiztegi bat agertzen da liburuan, eta bertan apaiz batek ailegatzen diren testigantzak jasotzen ditu. Aita Basarte da, eta beti eduki dut gogoan Aita Barandiaranen irudi abegikorra.

5



Larri gaixo dagoen Manu Azkarate presoak zimitzez betetako ziega batean sartu dutela salatu du

6



Alde Zaharra, zuri gorri

▲ Publizitatea



### **Testigantza horiek ere erabili dituzu istorioa idazteko. Zer topatu duzu bertan?**

Oso-oso hurbilak dira. Ezagutu dut jendeak zer bizi zuen garai horretan; horrek asko laguntzen du antzeko istorioak sortzeko. Bederatzi urteko umetxo baten istorioa dago, hanka galtzen duena; Manuel Intxaustiren irudia, erbestera zihoan jendeari laguntzen dion gizona...Azken batean, hemengo jendeak kontatzen zizkion gertaerak dira.

Badira horien artean tolosar batzuen Aitzol, Juan Sese?, Ignacia Marquet eta Adrian Laskibar testigantzak jasotzen dituzten lau txosten. Sansineneatarrak ere Aita Barandiaranen lagunak ziren; Pilartxoren irudia azpimarratu nahi nuke. Nik ezagutu nuen emakume zoragarri hura; nire izeba Kaxilda Munñoaren, Ikastolako andereñ?oaren, irakaslea izan zen eta lan ugari egin zuen kultura munduan.

### **Fikzioa eta errealitatea uztartzen dituzu, beraz.**

Elikatu egiten dira. Dena fikzioa da, baina errealitateko kontuekin elikatzen da istorioa.

### **Zein da eleberriaren muina?**

Gerra Zibilak eztanda egin baino lehen, aita batek erbestera alde egiten du bere bi seme txikiekin. Han, etxe batean egoten dira hilabete batzuk, ezkutatuta. Handik ere ihes egiten dute, baina biharamunean sarraski bat gertatzen da. Seme txikiak, handitzen denean, jakin nahiko du zer gertatu den bere ama eta arreba txikiarekin, haiek beren herrialdean gelditu zirelako.

### **Erbesteari garrantzia handia eman diozu, ezta?**

Bai, aita eta bere semeek Sarzinara alde egiten dute, eta Sarzinak badu nolabaiteko sinbolismo bat. Erromatarrek horrela deitzen zioten gainean zeramaten zamari. Ez nuen leku konkretu batera lotu nahi; kasu honetan, erbestea irudikatu nahi nuen, ez zuen horrenbesteko garrantziarik leku bat izan edo bestea. Zama hori, nostalgiaren tristurari lotuta dago; hori dauka erbestek.

### **Gaurkotasun handiko gaia ere bada erbestearena. Aipatu izan duzu kezkatzen zaituela gazteek nola bizi duten transmisio hori.**

Bai, nik uste dut eleberriaren helburuak hiru direla. Fikzioa denez, bizitza agertzen da; bizitza latzago bihurtzen da horrelako egoera batean. Hor jarraitzen dute maitasunak, gorrotoak, traizioak... eta horri buruz hausnartu daiteke. Txosten horiez edo memoria historiko horretaz hitz egiteko aukera ere ematen du eleberri honek eta gaur egun gertatzen ari denaz hitz egiteko. Egunero bost pertsona hiltzen dira Mediterraneo itsasoan; pertsona bakoitzak bere istoria du, eta gu kezkatu gara gurek alde egin dutenean, gure umeek... Liburu guztiek bizitza ekartzen dute eta irakurtzen ari zaren momentuan, liburu horretako istorioak bizitzen ditugu; horrek beti laguntzen du pertsonak ulertzen.

### **Eta zuk zer aukeratu duzu bizitzatik eleberrian islatzeko?**

Niri atentzioa sufrimenduak ematen dit, zentzu guztietan. Horrelako istorioen ernamuina izaten da; hortik abiatuta, fikziozko istorio bat josi dut. Indarkeria, ankerkeria, gaizkia...horrelakoak azalduko dira, errealitatean ere ikusten ditudanak.

### **'Egia' bilatzearen beharraz ere mintzatu zara.**

Asko gustatzen zait errealitatearen eta dirudienaren arteko jokoa. Istorioan, ume batzuek pertsonaia bat modu batekoa ikusten dute, manipulatu egiten ditu neurri batean.

Handitzen direnean, ordea, bestelako egiak ezagutzen dituzte, beste ikuspegiak ere behar dituzte. Bestela, guk nahi duguna soilik ikusten dugu, eta hor daude argiak eta itzalak. Itzalak ere bi zentzu izan ditzake: babesten zaituen zerbait izan daiteke, baina egia ezkututzen badu, kaltegarria ere izan daiteke.

### **Isiltasunak ere garrantzia handia du eleberrian, ezta?**

Bai, aitak ez die ezer esaten semeei, ez du ezer egiten, alde egiten du. Umeek, lehendabizi, amorrua sentitzen dute, aitak ez dielako azalpenik ematen. Herrian, isiltasun mota asko daude: gaizki ikusiak edo bekaizkeriak sortzen duena, esaterako. Niri amorru handia ematen dit besteak babesteko edo ez sufriarazteko erabiltzen dugun isiltasunak. Isiltasun batek izan ditzake ikuspegi ezberdinak; nik, adibidez, behar dut isiltasuna bizitzan. Izan ditzake konnotazio ezkorragoak ere; adibidez, gure istoria gertukoena isiltasunarekin estaltzen baditugu bake itxura eman nahian, kalte handiagoa sor dezakegu zauri asko egon daitezkeelako. Nik uste dut zenbait kasutan isiltasuna okerre dela: nik uste dut zintzotasuna behar dela gauza horietaz hitz egiteko, bestearen mina ulertzeko edo egia bilatzeko.

### **Isiltasunarekin batera, zer beste baliabide erabili duzu istorioa idazteko?**

Baliabideak baino gehiago, gaiak dira. Beti daude mamuak; horietako bat da heriotzarena. Heriotza batzuk daude gerrarekin lotutakoak, eta beste batzuk bizitzaren zati direnak. Adibidez, emakume asko gelditu ziren alargun nire inguruan. Teresa Luis gabe gelditzen denean, Teresak Luisen istorioa osatzen du, baina isiltasun latzarekin egiten du topo. Izan ere, Luis eleberri bat idazten hasten da, baina puntu batera arte iristen da. Batzuetan ez dakigu zergatik ez duen aurrera egiten, zerbait gehiago jakiteko beldurra duelako, edo nahikoa zaiolako. Gero, Teresak osatzen du eleberri hori. Hiru idazleren liburuak ere irakurri nituen alarguntze prozesuari buruz; horrek gerturatu egiten zaitu errealitate horretara.

### **L.A.A. argitaratu zenuen, orain 'Ahotsak eta itzalak'...hirugaren eleberririk baduzu buruan?**

Hernanin kokatuko dut istorioa. Laskorain Ikastolan ibiltzen nintzenean, Iurreamendi Egoitzatik pasatzen zen bidea, eta antzekotasunak ditu Hernaniko leku batekin. Gertaera batetik abiatuko da guztia.

### **Hainbat urtez ezkutuan lanean aritu ostean, hilabete gutxitan bi liburu argitaratu berri dituzu. Zer moduz daramazu guztia?**

Nahiko urduri nabil, dena da berria: elkarrizketak, aurkezpenak... Baina opari bat izan da eta oso pozik nago. Liburuak jendeari istorioak kontatzeko bide diren neurrian, pozgarria da orain irakurleengana iristea.

## Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

»» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)



Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.  
San Esteban, 20 Tolosa 20400  
Telefona: 943 65 56 95  
ataria@ataria.eus

**Publizitatea:** publi@ataria.eus / 661 678 818

Agerkari honek [Tokikom](#) Plataforma erabiltzen du

Codesyntaxek garatua



LAGUNTZAILEAK:



